

berriak

ziri

**JOSE LUIS
CASTEJON
GARRUES**

Lizarrako alkatea



«Foruen itzultzea eta Euskal Herria Nafarroan sartzea defendatu behar dugu»

DIARIO DE NOTICIAS

**JOSE MARIA
DE LA SOTA**

Euskal Abokatuena
Kongresuaren koordinatzailea

«Ez da betetzen ari justizia euskaraz jasotzeko eskubidea»

EL PAS

JOSU FRADE

Euskadiko UGTko idazkari nagusia



«Nire ondorengoak oinarri ideologiko sendoa izan behar du, hemen haizearen kontra joan behar duzulako nazionalista ez bazara»

EL CORREO

PABLO MILANES

Kantaria



«Kantautoreak oraindik ere beharrezkoak gara; mundua ez da horrenbeste aldatu»

LA VANGUARDIA

irritzia

zuzendaria

OHARRA: Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauenan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANen zenbakia agertu behar dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko. Gutunak faxez, posta arruntz edo posta elektronikoz bidal daitezke (helbide elektronikoa: egunkaria@jalgi.com).

Irakaslego Propioaren alde Euskal Herrian

Euskal Herriak Irakaskuntza-sistema Propioa behar du, berezkoak dituen baloreak eta nortasun-adierazleak garatu ahal izateko, bereziki bere hizkuntza, euskara. Honek, eredu akademikoak, linguistikoak, dozentek eta ikertzeak diseinatzen dituen osoa eskatzen du; hain zuzen ere, errealtate sozial, politiko eta kulturalari buruzko ikuspegi propioa nahiz berorik aldatzeko ahalmenak, mugatu ditzakeen Euskal Herriko kanpoko eskusartzerik gabekoa.

Irakasuntza-sistemari dagokionez, pertsona abertzale eta progresista orok, beti asmatu ohi du Euskal Unibertsitatea; hau da, euskal popularen zerbitzuan jarritako unibertsitate nazional, euskaldun eta herritarra. Bestela esanda, euskal nazioaren eraikuntza-bidean erreferente bilakatzeko gai izango den Unibertsitatea, alegia.

Horrela, Irakaslego Propioa erreibindikatzea, nahiera kolektibo honen adierazpen herritar nagusia izan da Unibertsitatean nahiz bertatik kanpo. Esan nahi baita, orain-oraingo borroka etengabearen bitartez, herri libre eta solidario gisa betikotzeko hain garrantzitsua dugun oinarriko tresna honi, Euskal Unibertsitateari, atek zabaltzera bideraturiko nahiera. Horrela bakarrik lortu ahal izango dugu gure herriak, berezko dugun nortasuna aitortzeko dakartzan eskakizunetatik abiatuz, giza ezagupeneko esperientzia guztietara zabalik jardutea.

Euskal Herriko Unibertsitatean Irakaskuntza-sistema Propiorik edota hori gauzatzeko Irakaslego Propioa ez izatea izan dugu, era berean, Euskal Herriaren eta bertako ikasleen hizkuntza-erabilerak unibertsitatearen egian onartuak izateko eragozpenik nagusienetako bat.

Irakaslego Propioaren alde UPVk hartutako bide luzea 1995ean burutu zen, batzorde unibertsitario batek Lege-aurreproiektu bat prestatu zuenean, bertan irakasleak kontratatuko

figura berriak, inor nahitaez funtzionario izatera behartuko ez luketean, proposatzen zirela. Zoritzarrez, Lege-aurreproiektu hau ez du Unibertsitatearen oraino Gasteizko Parlamentura bidali, aurretik hartutako akordioaren kontra jokatu. Ondorioz, une honetan onartzearen dagoen Unibertsitate-Antolakuntzarako Lege berriak ez dio atal berezirik eskaintzen edozein plangintza gauzatzeko hain funtsezkoa den irakaslegoari, lege-proposamen hori egin duten UPV-ko proiektuaren berri izan duten arren. Automugaketa ulertzina egin dutena, kontuan hartzen bada Gernikako Estatutuak eskuduntza eskusiboak dituela hezkuntzari dagokionez.

Aurrean esandako hori guztia dela eta, agintari eta agente politikoei, UPVk gauzatuako Aurreproiektu hura (1995ko urrikoa), lege-gintzaldi hau amaitu aurretik onartua izan da dila eskatzen diegu. Aldi berean, dei egiten diegu Irakaskuntza-sistema Nazionala sortzeko interesa duten lagun eta talde herritar guztieri, honako proposamen hau babes dezaten. Unibertsitateak gure herriak eskatzen duen irakasuntza propioa sendo oinarritzeko ezinbestekoa den Irakaslego Propioa behingoz izan dezan.

• **Martin Orbe, Gotzon Garate, Joxe Azurmendi, Jon Sarasua**

(eta beste 86 sinadura gehiago)

LEIOA (BIZKAIA)

Monumentuak noren ardura?

Joan den otsaileko igande batean inguruko mendietan ibilalditxo bat egitea erabaki nuen. Horretarako, Aranzadi Zientzi Elkarteak argitaratutako Gipuzkoako Karta Arkeologiko bikaina begiratu nuen ibilbidea aukeratzeko, sarritan mendi-ibilbideak prehistoriako aurkikuntzen arabera aukeratzen baitituz.

Bergarako Elosua-Plazentzia megalitotegia ikusia nuenez (Deba Garaiko Kapirixto taldeak duela gutxi txukundu zuena), Udala-Intxortakora jo nuen, Hirutorrreta (San Prudentzio gora) eta Kanpanzar artean dauden sei tumuluak ikusteko. Karta Arkeologikoak berak zioen horietako bi suntsituak zirela baso-pistaren bat egin zenean edo pinuak landatu zirenean. Dena dela, beste laurak ikustera abiatu nintzen jaiegun hartan.

Gipuzkoan ohizkoa zaigun paisaia aurkitu

nuen: pistak eta pinuak neurrigabeki han-henka, sasi zikinak eta oteak nohahi, eta lurra zigortuta, ahituta. Gasbidea jarraituz Hirutorrreta III tumulura iritsi eta han topatu nuen bi pistaren artean estu-estu eginda eta pinu-adarrez ia guztiz estalia. Goinzari Zelai tumulurako bidea segitu nuen baina ezin aurkitu eta aurrera egin nuen Lasartegain tumulurantz. Hara heldu eta Aranzadiokoei aspaldi jarritako egurrezko seinalearen arastorik ere ez zegoen, baina bai nabarmenak zirela inguruan eta tumuluaren harrietan induskailu baten aztarnak eta, jakina, pinu txiki berriak tumulan bertan landatuta. Penagarrion. Tira, ba, esan nuen etsita, Trampaluarrira joango naiz, 29 metro diametroko tumulu ibetza gozatzera. Bai zera! Hura ere ote eta atzetoa, itota. Negargarria.

Gipuzkoako beste trikuharri eta tumulu asko egora beretsuan daude. Ulergarriak izan daitezke garai batean ezjakintasunak eragindako txikiok, baina nekez uler daitezke gaur egun horrelako astakeriak (gasbidearekin batera egindakoak ez aipatzearen). Hona hemen okurritu zaizkidan hainbat proposamen prehistoriako monumentu xume hauek zaintzeko:

- Udalak megalito bakoitzaren ondoan harritzoko seinale berriak jartzea (Zumarragakoak, esaterako, jarrita dauzka).

- Megalitoak dagoen lurra pribatua baldin bada, Udalak jabeari jakinarazi diezaioala erakiri hauek ez direla harri-plaketak soilik, balio historikoa duten gure arbasoen hilotziak baizik, eta errespetatuta ditzala eskatu.

- Herrian dauden talde mendizale edo kulturalekin hitz egin eta megalitoak garbitzeko, txukuntzeko edo berreraikitzeko (ezin da berreraiki, esaterako, Azkotiaren dagoen Hiruurrrieta trikuharria?) taldeak antolatu, beti ere Aranzadi Elkartearen aholkularitzapean, beharrezkoak balitz, ziar bainaz jende asko prest egongo dela horrelako lanak musutruk egiteko (horra hor Deba Garaian lehen aipatutako Kapirixto taldea, Azpeitiko Antxieta taldea...).

- Proposamen hauek botatzen dituztakin gabe honi buruzko araurik dagoen edo monumentu hauek behar bezala kontserbatzeko arduraren noren ez zehazki: udalarena edo Diputazioarena. Beraz, norbaitek argibide gehiago baldin badauka, eskertuko nioke ematea.

• **Pello Biain**

ZUMARRAGA (GIPUZKOA)

seiko urrea

Jon Alonso



Erabakiaren zain

Astehenean hasi zen Itoizko kableak moztu zituztenen aurkako epaiketa. Hiru egunez egiteko omen da. Hontaz, ezer berezirik gertatzen ez dela, gaur izango da epaiketaren azken eguna. Berezik farregarria da ikustea atzo bertan EGUNKARIAK argitaratzen zuten argazkia, non txapelokerrak eta solidarioak elkarrekin azaltzen ziren, «Entzutegi Nazionalaren agente eraginkor bezala jokatu genuen» titularen azpian bat egitnik. Nori zihoa-



kion izenburua? Alicia Lurralde miresgarrian ere ez da horrelakorik ikusten ahal.

Jakina, Lewis Carroll baten irudimena labur da hemen gerta litekeenak igartzeko. Bitartean, Iruñeko prentsako dekanok luze jarduten zuen akusatuetako bat jende guztia «tu-ka aritu zitziola -baita jufeari berari ere!- azpimarratzeko. Esanahi berezia du horrek -tu-ka aritu izanak eta txikieria horrek hainbeste letra hartu izanak-, kirats berezia hartzen du gurea bezalako gizarte kuarterlo, klausurozale, kontakatilu eta autoritarioan. Farre ere egingo genuke, hemeritzi urteko kondena-eskaera ez balitz tartean.

Datorren astean erabaki behar omen du Frantziako Gobernuak Josu Beaumont espainiaratzen duten edo ez. Hemengo epaitegiaren ez omen du auzirik. Beaumontek duela hamar bat urte egin zuen alde Iruñeko parte zaharretik. Kondena luze bat bete du kartzelean, Frantziari. Guztiz politikoa den erabaki baten zain dago, nor eta izara politikoa, diskurtso ofizialean bederen, temati ukatzen dioten bat. Irrifar egingo genuke egoeraren absurduaren aurrean.

torturaren mamu beltza airean ez balego. Baina ohitu gara beste aldera begiratzin.

Halabeharrik, edo epaitegiaren egutegiak nahi izan du, azkenik, bi aste barru hainbat urtez gure lehendakaria izan den Gabriel Urralburuk akusatuen aulkian eseri behar izatea. Kable batzuk moztutzea zein garesti ordain daitekeen ikusirik, kristal batzuk txikitzea zein garesti ordaintzen den ikusirik, falta dugu ikustea milaka milioi batzuk eraman izana eta gure elkarbizitza ustelkeria politikoa eta moralezko laimo lodi eta lika baten azpian hondoratzea merke ala garesti ordaintzen den.

Martxoak eskainiko digu, beraz, gure gizarte txikia isladatzen duten arazoan lagin zabala, baita haietako bakoitzari ematen zaiton traiera ikusteko aukera emango ere. Ikusi egingo dugu. Bitartean, ezer gertatuko ez balitz bezala segituko dugu, politikariek dena ongi doa eta ez dago arazorik tipoko mezuak zabalitzen dituzten artean. Beharrik ekonomia -hala diote, hala izango da- ongi dabilen. Hondar-alez erakitako gaztelu honek ez bailuke lau eguneko gosetea jasango.